



LALO DVORAK

14

Maiatza / Mayo

19:30

Pamplona / Iruña

BALUARTE

EUSKADIKO ORKESTRA

Zuzendari Titularra / Director Titular:
Robert Treviño

KONTZERTINOA CONCERTINO

Julián Gil Rodríguez

I BIOLINAK / VIOLINES I

Beatrice Gajju (1) (5)
Xabier de Felipe (4)
José Ignacio Aizpiri
Inmaculada Aramburo
Laura Balboa
Irene Echeveste
Marie Gaillard
Alexandre Kozouline
Oscar López
Maite Menéndez
Larraitz Oartzabal
Ortzi Oihartzabal
Itziar Prieto
Maialen Rezabal
Cristina Vértiz

II BIOLINAK / VIOLINES II

Raquel Cortinas (2)
Xabier Gil (2)
Mikel Ibañez (4)
Marie Héloïse Arbus (5)
Amaia Asurmendi
Nathalie Dabadie
Virgile Demillac
Ludwik Hamela
Anne-Marie Harmat
Antoni Kosc
Ricardo Ruiz
Igor Torre

BIOLAK / VIOLAS

Delphine Dupuy (2)
Pawel Krymer (2)
Monika Mazur (4)
Maite Abasolo
Esther Alba
Pascal Arnaud
Natacha Dupuy-Scordamaglia
Justyna Janiak-Krymer
Arkaitz Martínez
Sergio Montero
Yann Seyrac

BIOLONTXELOAK VIOLONCHELOS

Juan Ignacio Emme (2)
Gabriel Mesado (2)
Flore Lefevre (4)
Natalia Díaz
Jon Larraz
Beatriz Linares
Pascale Michaud
Ian Swedlund

KONTRABAXUAK CONTRABAJOS

Arkadiusz Maciejski (2)
Paloma Torrado (2)
Marc Sirera (4)
Victor Bogdanov
Mehmet Sönmez
Pierre Torrent

FLAUTAK / FLAUTAS

Hélène Billard-Alirol (2)
Bruno Claverie (2)
Ander Erburu
Oihana Kontxeso

OBOEAK / OBOES

Óscar Diago (2)
Javier Lecumberri (2)
Pascal Laffont
Hervé Michaud

KLARINETEAK CLARINETES

Luis Cámara (2)
Juan Navarro (2)
Stéphane Langlois
Sara Zufaurre

FAGOTAK / FAGOTES

Marco Caratto (2)
François Proud (2)
Yuan Dai
Anne Charlotte Lacroix

TRONPAK / TROMPAS

Marcos Cruz Pardeiro (2)
Adrián García Carballo (2)
Cristian Palau (2)
Ignacio Sánchez (3) (5)
Jean-Luc Casteret
Xabier Sarasa
Salvador Tudela

TRONPETAK / TROMPETAS

Didier Bousquet (2)
Bernabé García (2)
Jesús Castillo
Miguel Echepare

TRONBOIAK / TROMBONES

Arnaud Mandoche (2)
Christophe Sánchez (2)
Frédéric Boulan (5)
Daniel Ruibal

TUBA

Oscar Abella (2)

TINBALAK ETA PERKUSIOA TIMBALES Y PERCUSIÓN

Igor Arostegi (2)
Anthony Lafargue (2)
Héctor Marqués (2)
Irene Rodríguez (3) (5)
Xabier Peña

HARPA / ARPA

Iván Bragado (2)

- (1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino
- (2) Bakarlarria / Solista
- (3) Bakarlari-laguntzailea / Ayuda de solista
- (4) Lehen *tuttia* / Primer tutti
- (5) Aldi baterako kontratazioa / Contratación temporal



**LINA GONZÁLEZ-
GRANADOS**
Zuzendaria ° Directora



ALBAN GERHARDT
Biolontxelo
Violonchelo

LALO
DVORAK

EGITARAUA ^ PROGRAMA

I **ANNA CLYNE** (1980)

This Midnight Hour* [12']

Argitaletxea / Edita: Boosey & Hawkes Music Publishers Ltd

EDOUARD LALO (1823-1892)

Concierto para violonchelo y orquesta en re menor [26']

- I. Prélude: Lento - Allegro maestoso
- II. Intermezzo: Andantino con moto - Allegro presto
- III. Introduction: Andante - Allegro vivace

II

ANTONIN DVORAK (1841-1904)

Sinfonía nº7 en re menor, Op.70, B.141 [35']

- I. Allegro maestoso
- II. Poco adagio
- III. Scherzo: Vivace
- IV. Finale: Allegro

*Lehen aldiz interpretaturiko obra
Obra interpretada por primera vez

Aнна Clyneren musika sinfonikoa lehen aldiz entzungo da Euskadin, **Lina Gonzalez-Granados**en eskutik. Bizirik dauden eta gehien programatzen diren 10 konpositoreen artean sailkatu zuen Anna Clyne 2023an Bachtrack plataformak. Lina Gonzalez-Granados, berriz, zuzendari saritu kolonbiar-estatubatuarra da, Riccardo Mutiren ikaslea eta Los Angeleseko Operari lotua. Gaur Euskadiko Orkestrarekin egingo du debuta, beste solista handi batekin batera. Azken horrek bisitatu du aurretik gure denboraldia; azkenekoz, 2016an. **Alban Gerhardt** da, egungo biolontxelistarik ospetsuenetako bat. Mundu erdiko agertokietan txalotu dituzte hark egiten dituen Xostakovitzren kontzertuen bertsiok. Gaurko bisitan, ordea, Frantziako Erromantizismoko lan handietako bati helduko dio.

Obra sinfoniko garaikidea da ***This Midnight Hour***, nazioarteko arrakasta handia lortu duen bakarretakoa. Orchestre National d'Île-de-Franceren enkargu batetik sortu zen. 2015eko azaroaren 13an estreinatu zuen eta, orduetik, mundu erdian programatu dute orkestra oso garrantzitsuek, hala nola Los Angeleseko Filarmonikoak edo BBC Philharmonicek. 2024ko maiatzean zehar 13 aldiz interpretatuko dute Estatu Batuetako eta Europako orkestrek; besteak beste, noski, Euskadiko Orkestrak.

Anna Clyneren arabera, «L'Orchestre National d'Île de Franceko hari baxuen izaera eta indarra» iradokitzen dituzte *This Midnight Hour* obraren hasierako konpasek. «Eta, hortik aurrera, bi poematan inspiratzen da: bat Charles Baudelaierena eta bestea Juan Ramon Jimenezena», jarraitzen du egile britainiarrek. Lehenengoa, *Arratseko harmonia*, *Gaitzaren loreak* izeneko lanaren zati bat da, iruditeria kosmiko eta sentsorial handikoa («Biolinak bihotz samindu baten antzera egiten du dar-dar, / Huts itzel eta beltza gorrotatzen duen bihotz samurra! / Zeru traste dago, aldare handi bat bezain eder / Eguzkia bere odol koagulatuan ito da»). Aldiz, Juan Ramon Jimenezen poema laburra («Musika, emakume biluzia, gau puruan zoro moduan korrika»), «irudi indartsu gisa» agertu zitzaion Clyneri; «energia frenetikoko eztanden bidez interpretatzea erabaki nuen, adibidez, hariak azpitaldeetan banatuta, irudiak *fortissimon* jotzeko, ur-jauzi beherakor batean, ezkerretik eskuinera mailakatuta, efektu estereo batekin». *This Midnight Hour* lanak, askotariko inspirazio-iturri horiekin, poema sinfonikoaren izaera du, edo musika zinematografikoarena ere bai. Baina ez du programa literariorik. «Helburua ez da narratiba zehatz bat ordezkatzea», azaldu du Clynek. «Entzuleari bidaia bisual bat iradokitzea da nire asmoa».

Edouard Lalo kontzertuen generoko obretan espezializatu zen; bereziki, biolinerako kontzertuetan. Eta Georges Servieres kritikariak Laloren arrakasta honakoan oinarritzen zela idatzi zuen: «XIX. mendearen amaierako musika frantses nahasgarri samarraren gainean eguzki izpi bat jaurti izana eta poza, bizitasuna, samurtasun garbi eta sentimentalismorik gabeta eta pasio kartsua sartu izana, edonolako erotismo kaltegarririk gabeta». Deskribapena xeble samarra da, baina bi tradizio ezberdin (alemaniarra eta Berliozen tradizio frantsesa) kontzertu-ekoizpen baten barruan uztartu izanaren meritua aitortu ohi zaio Laloren musikari. Horrek ahalik eta gehien nabarmentzeko aukera ematen dio beti solistari, orkestrak mendeko jarrerarik hartu beharrik gabe, garai hartako musika

frantsesean ohikoa zen moduan. 1873an garatu zuen formula musikal hura, Sarasaterekin egon ondoren, eta lehenengo arrakasta lortu zuen: *Espainiako Sinfonia*, 1874koa.

1876 eta 1877 artean idatzi zuen ***Biolontxelorako Kontzertua*** da bere beste obrarik interesgarrienetako bat. Adolphe Fischerrek estreinatu zuen 1877ko abenduaren 9an, Concerts Populaires de Jules Padeloupen, eta askotariko paisaiak ditu barruan: *Lento* batekin hasten da *Preludioa*, estilo errezitatioan; gero *Allegro maestoso* batean murgiltzen da, bi gai ezberdin eta oso efektistaz markatuta; *Intermezzo*an, berriz ere, *Sinfonia espainiarrarekin* horrenbesteko arrakasta ekarri zion exotismo espainiarrarekin egiten dugu topo; eta amaierako mugimenduan, sarrera misterioitsu baten ondoren, biolontxelojole solistak eritmo siziliar oso azkar bat jotzen du.

Dvoraken nazioarteko ibilbidea berandu hasi zen. 1865az geroztik modu erregularrean konposatzen zuen eta nolabaiteko ospea lortu zuen musika eremu bohemiarran, baina 1874ko abuztuan, ia 33 urte zituela, lortu zuen haren zortea aldatzen hastea. Uda hartan «baliabiderik gabeko artista gazte talentudunei» zuzendutako lehiaketa bat irabazi zuen. Beste batzuen artean, Johannes Brahms eta Eduard Hanslick kritikaria zeuden lehiaketa hartako epaimahaian. Dvorakek berriz irabazi zuen sari hura 1876an eta 1877an, eta horrek Brahmsen interesa hazten joatea eragin zuen. Azkenean, interes haren ondorioz, 1878an kontratu bat sinatu zuten Dvoraken eta Brahmsen Vienako editorearen, Simrocken, artean. Simrockek argitaratutako lehenengo lanak, *Eslaviar dantzak*, *Op.46* izenekoak, salmenta handiak eragin zituen Europa osoan, eta Dvoraken ganbera-musikaren eta orkestra txikientzako musikaren eskari handia sortu zen.

Musikaren historiako sorkuntzarik bikainenetako batzuk konpositoreen arteko lehiakortasunetik sortu dira. Brahms eta Dvorak ez ziren aurkariak; aitzitik, esan dugun moduan, Brahmsen laguntza erabakigarria izan zen bohemiarraren ospea nazioartera zabal zedin, eta Dvorakek beti eskertu zion, zor hura aitortuz eta alemaniarra garai hartako konpositorerik handiena zela goraiapatuz. Eta miresmen horretatik jaio zen bere ibilbideko sinfoniarik garrantzitsuenetako bat. 1883ko abenduan Brahmsen 3. *Sinfoniaren* estreinaldira joan eta handik gutxira hasi zen Dvorak haren ***Zazpigarren Sinfonia*** lantzen. Haren ospea finkatzea zen Dvoraken asmoa, musika bohemiarrak baino mami gehiagoko obra baten bidez. Izan ere, musika bohemiarrak arin samarra zen; Simrockek eskatzen zion mota horretako musika merkatu britainiarerako, han arrakasta handia baitzuen. Baina bazen Dvorak gehiago kezkatzen zuen kontu bat: «Zerbait errespetagarria izan behar du, ez baitut Brahms atsekabetu nahi», esan zuen. Europako sinfonistarik handienaren mailan egoteko ahaleginaren fruitua haren sinfoniarik perfektuena izan zen, monumentu soil eta hausturarik gabea, baina kolore bohemiarrari uko egin gabe. Hala, harrera kartsua izan zuen 1885eko apirilean, Londresen estreinatu zuenean. Donald Tovey jaunaren iruzkina adierazgarria da: «Inolako zalantzarik gabe, Schuberten *Do maiorreko Sinfoniaren* eta Brahmsen lau sinfonien alboan kokatzen dut Dvoraken *Zazpigarren Sinfonia*; arte mota honen adibiderik handienak eta puruenak dira horiek, Beethovenen garaitik».

La música sinfónica de **Anna Clyne**, que en 2023 entró en el top 10 de compositores vivos más programados según la plataforma Bachtrack, sonará por primera vez en Euskadi de manos de **Lina González-Granados**, la premiada directora colombiana-estadounidense, alumna de Riccardo Muti y vinculada a la Ópera de Los Ángeles, que hoy realiza su debut con Euskadiko Orkestra junto a otro gran solista que sí ha visitado nuestra temporada, por última vez en 2016. Se trata de **Alban Gerhardt**, uno de los más reconocidos violonchelistas del presente y cuyas versiones de los conciertos de Shostakovich, en concreto, han sido aclamadas en los escenarios de medio mundo. Pero hoy nos visita para abordar una de las grandes obras del Romanticismo francés.

El de ***This Midnight Hour*** es un raro caso de obra sinfónica contemporánea que logra alcanzar un gran éxito internacional. Nació de un encargo de la Orchestre National d'Île-de-France, que la estrenó el 13 de noviembre de 2015, y desde entonces se ha programado en medio mundo y por orquestas tan importantes como la Filarmónica de Los Ángeles o la BBC Philharmonic. Solo durante el mes de mayo de 2024, será interpretada hasta 13 veces por orquestas estadounidenses y europeas, y entre ellas, por supuesto, Euskadiko Orkestra.

Anna Clyne explica que los compases iniciales de *This Midnight Hour* sugieren «el carácter y la fuerza de las cuerdas graves de la L'Orchestre National d'Île de France». «Y, a partir de aquí», prosigue la autora británica, «se inspira en dos poemas: uno de Charles Baudelaire y otro de Juan Ramón Jiménez». El primero, *Armonía del atardecer*, es un fragmento de *Las flores del mal* de imponente imaginaria cósmica y sensorial («El violín vibra como un corazón afligido, / ¡Un corazón tierno que odia la nada vasta y negra! / El cielo está triste y bello como un gran altar / El sol se ha ahogado en su sangre coagulada»); mientras que el breve poema de Juan Ramón Jiménez («La música, mujer desnuda, corriendo loca por la noche pura»), se le presentó a Clyne como «una poderosa imagen que elegí interpretar con estallidos de energía frenética, por ejemplo, dividiendo las cuerdas en subgrupos que tocan en *fortissimo* figuras en una cascada descendente, escalonada de izquierda a derecha en un efecto estéreo». *This Midnight Hour* que, bebiendo de estas diversas inspiraciones, presenta un fuerte carácter de poema sinfónico o incluso de música cinematográfica, no tiene, sin embargo, un programa literario. «No pretende representar una narrativa específica», puntualiza Clyne. «Mi intención es que evoque un viaje visual para el oyente».

De **Édouard Lalo**, quien se especializó en obras del género concertante y, particularmente, para el violín, el crítico Georges Servières escribió que la clave de su éxito era «haber arrojado un rayo de sol sobre la algo confusa música francesa de finales del siglo XIX, introduciendo alegría, vivacidad, una ternura casta y libre de sentimentalismo y una pasión ferviente desprovista de cualquier erotismo malsano». La descripción resulta un tanto estrambótica, pero se suele reconocer en la música de Lalo el mérito de haber reconciliado dos tradiciones diferentes, la alemana y la francesa de Berlioz, dentro de una producción concertística que permite siempre al solista brillar al máximo sin forzar a la orquesta a una posición subordinada, como solía ser habitual en la música francesa de la época. Esta fórmula musical, que desarrolló tras su encuentro con Sarasate en 1873, le dio su primer gran éxito con la *Sinfonía española* de 1874.

El **Concierto para violonchelo**, escrito entre 1876 y 1877, es otra de sus obras más interesantes. Fue estrenado por Adolphe Fischer el 9 de diciembre de 1877 en los Concerts Populaires de Jules Pasdeloup, y presenta paisajes muy variados en su interior: el *Preludio* comienza con un *Lento* en estilo recitativo, antes de abocarse a un *Allegro maestoso* marcado por dos temas contrastantes y muy efectistas; en el *Intermezzo*, nos topamos nuevamente con el exotismo español que tanto éxito le había traído con la *Sinfonía española*; y en el movimiento final, tras una misteriosa introducción, el solista de violonchelo cabalga sobre un trepidante ritmo siciliano.

La carrera internacional de **Dvorak** despegó tarde. Aunque componía regularmente desde 1865 y se había labrado un pequeño nombre en el ámbito musical bohemio, no fue hasta agosto de 1874, con casi 33 años, que su suerte comenzó a cambiar. Aquel verano ganó un concurso para «jóvenes artistas talentosos y sin recursos», cuyo jurado estaba compuesto, entre otros, por Johannes Brahms y el crítico Eduard Hanslick. Dvorak volvió a ganar este premio en 1876 y 1877, lo que dio lugar a un progresivo interés de Brahms que finalmente fructificó con la firma de un contrato entre Dvorak y el editor vienés de Brahms, Simrock, en 1878. La primera obra publicada por Simrock, las *Danzas eslavas*, *Op. 46*, fueron un éxito de ventas en toda Europa y generaron una gran demanda de la música de cámara y para pequeña orquesta de Dvorak.

Algunas de las creaciones más perfectas de la historia de la música han surgido de la competitividad entre compositores. No es que Brahms y Dvorak se considerasen rivales; al contrario, Brahms ayudó decisivamente a que la fama del bohemio rebasase del ámbito local al internacional, y Dvorak se lo agradeció siempre reconociendo esta deuda y alabando al alemán como el más grande compositor de su época. Y de esa admiración nació una de las sinfonías más importantes de su carrera.

Dvorak comenzó a trabajar en su **Septima Sinfonía** poco después de asistir al estreno de la *Sinfonía n.º 3* de Brahms en diciembre de 1883. La pretensión de Dvorak era afianzar su fama con una obra de más envidia que las músicas de color bohemio, un tanto ligeras, que Simrock le pedía para el mercado británico, donde gozaban de gran éxito. Pero había una cuestión que preocupaba más a Dvorak: «Tiene que ser algo respetable porque no quiero decepcionar a Brahms», anotó. El fruto de ese esfuerzo por estar a la altura del más grande sinfonista de Europa fue su sinfonía más perfecta, un monumento austero y sin fisuras, aunque sin renunciar por ello al color popular bohemio, que provocó el entusiasmo en su estreno en Londres en abril de 1885. El comentario de Sir Donald Tovey es representativo: «No tengo la menor duda en colocar la *Séptima Sinfonía* de Dvorak, junto a la *Sinfonía en do mayor* de Schubert y las cuatro sinfonías de Brahms, como los mayores y más puros ejemplos de esta forma de arte desde Beethoven».

————— MIKEL CHAMIZO

HURRENGO ABONU KONTZERTUA • PRÓXIMO CONCIERTO DE ABONO

DUTILLEUX
STRAUSS

Ekaina 4 Junio | 19:30



SARRERAK ENTRADAS

10€ < 38€

euskadikoorkestra.eus
baluarte.com
Leihatila - Taquilla






EUSKADIKO ORKESTRA

ZUZENDARI TITULARRA

ROBERT TREVIÑO

DIRECTOR TITULAR



MAHLER · BRAHMS · SHOSTAKOVICH · RAVEL · FALLA · COPLAND
LAUZURIKA · RACHMANINOFF · STRAUSS · VENEGAS · PROKOFIEV
MOZART · BRUCKNER · LALO · DVORAK · DUTILLEUX

Bilboko Koral Elkarteak · Justina Gringyte · Stanislav Kochanovsky · Sergey Khachatryan · Juanjo Mena
Clara Mouriz · Alfonso Gómez · Juraj Valcuha · Riccardo Frizza · Federico Colli · Pablo González
Donostiako Orfeoia · Alisa Kolosova · Marie Jacquot · Markus Schirmer · Lina González-Granados
Alban Gerhardt · Elena Sancho Pereg



SARRERAK / ENTRADAS

A partir de **10€** -tik gora

Tarifa bereziak: kontsultatu deskontuak
Tarifas especiales: consultar descuentos

PAMPLONA / IRUÑA - Baluarte
19:30

euskadikoorkestra.eus - 943 01 32 32